4.- Organo instruktorea dirulaguntza-lerroari dagokion aurrekontu-programako arduradun teknikoa izango da. Organo instruktoreak dirulaguntzei buruzko araudi orokorrean aurreikusitako instrukzio-egintza guztiak egingo ditu. Batez ere, betekizun orokorrak eta bereziak betetzen direla aztertuko du, eta, horrez gain, helburu bererako egon daitezkeen beste diru-laguntza batzuei buruzko aurrekariak aztertuko ditu, balizko finantziazio-larregikeriarik eta bateraezintasunik dagoen egiaztatzeko. Instrukzio-ekintzak txostena / ebazpen-proposamena egitean amaituko dira.

5.- Kontu Hartzailetzak fiskalizazio-txostena egin ostean, kasuan kasuko ebazpena emango da Alkatetza Dekretuaren bitartez, espedientea amaitu ahal izateko.

**BIGARREN TITULUA: DIRULAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA ETA EGIAZTAPENA**

**LEHENENGO KAPITULUA: XEDAPEN SUBSTANTIBOAK**

**15. artikulua.- Dirulaguntzak jaso ditzaketen gastuak**

1.- Hasieran, eta oro har, era guztietako gastuak onartuko dira dirulaguntzak jaso ditzaketen gastu moduan, bai eta ondasun inbentariagarrien erosketa eta finantza, peritazio eta zerga gastuak ere. Kasu guztietan, gainera, dirulaguntzei buruzko araudi orokorrean zehaztutako mugak baino ez dira kontuan hartuko.

Diru-laguntza-lerro bakoitzean, oinarri arautzaileek (edo, dirulaguntza zuzenean ematen denean, hitzarmenak edo ebazpenak) gastu zehatzen bat salbuetsi ahal izango dute berariaz.

2.- Oinarri arautzaileek (edo, dirulaguntza zuzenean ematen denean, hitzarmenak edo ebazpenak) kostu guztiaren gaineko ehunekoren bat aurreikusi ahal izango dute, zeharkako kostuen egozpena izaki, justifikatu beharko ez dena. Halakoetan, kostuen egozpena justifikatzeko erabilitako azterketa edo txosten ekonomikoa zein den azaldu beharko da.

**16. artikulua.- Justifikazio-modalitate arrunta: gastuen egiaztagiriak eskatzen dituen justifikazio-kontua**

1.- Oro har, hurrengo artikuluan xedatutako guztian izan ezik, dirulaguntzak justifikatzeko modalitatea "gastuen egiaztagiriak eskatzen dituen justifikazio-kontua" izango da, dirulaguntzei buruzko araudi orokorrean araututakoa kontuan hartuta.

2.- Edonola ere, egiaztagiri originalak zigiluaz markatuko dira, eta bertan adieraziko da zer dirulaguntzaren justifikaziorako aurkeztu diren eta egiaztagiriko

4.- El órgano instructor será el o la responsable técnica del programa presupuestario al que corresponda la línea de subvención. El órgano instructor practicará todos los actos de instrucción previstos en la normativa general sobre subvenciones. En particular examinará el cumplimiento de los requisitos generales y específicos y recabará antecedentes sobre otras posibles subvenciones para el mismo objeto con el fin de comprobar posibles incompatibilidades y excesos de financiación. Los actos de instrucción finalizarán con la emisión del Informe-propuesta de resolución

5.- Tras el informe de fiscalización por la Intervención, el expediente concluirá mediante el dictado de la Resolución por Decreto de Alcaldía.

**TITULO SEGUNDO: JUSTIFICACIÓN Y COMPROBACIÓN DE LAS SUBVENCIONES**

**CAPITULO PRIMERO: DISPOSICIONES DE CARÁCTER SUSTANTIVO**

**Artículo 15.- Gastos subvencionables**

1.- En principio, y con carácter general, se admitirán como gastos subvencionables todo tipo de gastos, incluidos la adquisición de bienes inventariables, los gastos financieros, periciales y tributarios, con los únicos límites, en todos los casos, establecidos en la normativa general sobre subvenciones.

Para cada línea de subvención concreta, las bases reguladoras (o el convenio o la resolución, en los supuestos de concesión directa) podrán excluir, de forma expresa, algún tipo de gastos concretos

2.- Las Bases Reguladoras (o, en los supuestos de concesión directa, el convenio o la resolución) podrán prever un porcentaje del coste total que, como imputación de costes indirectos, no requerirán de justificación. En tales casos deberá especificarse el correspondiente estudio o informe económico en el que se fundamente la imputación de costes.

**Artículo 16.- Modalidad de justificación normal: cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto.**

1.- Con carácter general, salvo lo dispuesto en el artículo siguiente, la modalidad de justificación de las subvenciones será la "cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto" en los términos regulados en la normativa general sobre subvenciones.

2.- En todo caso, los justificantes originales se marcarán con una estampilla, indicando en la misma la subvención para cuya justificación han sido presentados y si el importe del

zenbatekoa oso-osorik edo zati batez egotziko zaion dirulaguntza horri.

**17. artikulua.- Beste justifikazio-modalitate batzuk. Mugak eta baldintzak**

1.- Oinarri arautzaileek (edo, dirulaguntza zuzenean ematen denean, hitzarmenak edo ebazpenak) aurreko artikuluan oro har aurreikusitakoa ez beste justifikazio-modalitate batzuk erabili daitezkeela aurreikusi ahal izango dute.

2.- Modalitate horiek erabiltzean, diru-laguntzei buruzko araudi orokorrean aurreikusitako baldintzak eta mugak beharko dira bete, bai eta ondoren kasuan-kasuan zehaztutakoak ere:

-a) Kontu-ikuskatzailearen txostena eskatzen duen justifikazio-kontuaren modalitatea: araudi orokorrean eskatutako baldintzak baino ez dira eskatuko.
-b) Justifikazio-kontu erraztuaren modalitatea: oinarriek edo, hala badagokio, hitzarmenak edo ebazpenak derrigorrean azaldu beharko dute zer laginketa-teknika zehatz erabiliko den.
-c) Moduluen modalitatea: oinarriek edo, hala badagokio, hitzarmenak edo ebazpenak moduluen zenbateko unitarioa zein den zehaztu beharko dute, erantsi beharreko txosten teknikoan adierazitakoaren arabera.
-d) Kontabilitate-egoeren modalitatea: aurkeztu beharreko egiaztagirietan, ordenantza honetako 19. artikuluan aipatutako Jarduketa Memoria erantsi beharko da.

3.- Espezifikotasun handikoak direnez, konkurrentzia ez-lehiakorraren araubidearen bitartez ematen diren dirulaguntzak justifikatzeko arauak, diru-laguntza horietako oinarri arautzaileek kasuan-kasuan xedatutakoak izango dira.

**18. artikulua.- Gastuen egiaztagiriak**

“Gastuen egiaztagiriak eskatzen dituen justifikazio-kontuaren” modalitatean nahiz “justifikazio-kontu erraztuaren” modalitatean, honako agiri hauek onartuko dira gastuen egiaztagiri moduan:
-a) Fakturak.
-b) Nominak.
-c) Gizarte Segurantzako TC1 eta TC2 agiriak.
-d) Ticketak. Bakar-bakarrik onartuko dira Fakturazio Betebeharrak arautzen dituen 57/2004 Foru Dekretuko 4. artikuluan edo, hala izatekotan, haren ordez emango den xedapenean edo arauan aurreikusitako kasuetan eta eragiketetan.

-e) “Jaso dut” moduko ordainagiriak, dagokien bankuko mugimenduaren egiaztagiriarekin batera. Pertsona fisikoek jaulkitzen dituztenean eta emandako zerbitzua ohikoa eta

justificante se imputa total o parcialmente a dicha subvención.

**Artículo 17.- Otras modalidades de justificación. Límites y condiciones**

1.- Las Bases Reguladoras (o el convenio o la resolución, en los supuestos de concesión directa) podrán prever la utilización de otras modalidades de justificación distintas de la prevista con carácter general en el artículo anterior

2.- La utilización de tales modalidades, deberá hacerse con observancia de las condiciones y los límites previstos en la normativa general sobre subvenciones, y además, los que se especifican a continuación en cada caso:

-a) Modalidad de cuenta justificativa con informe de auditor: No serán exigibles otras condiciones que las exigidas en la normativa general.
-b) Modalidad de cuenta justificativa simplificada: Las bases, o el convenio, o la resolución en cada caso, deberán necesariamente señalar la técnica concreta de muestreo a utilizar.
-c) Modalidad de módulos: Las bases, o el convenio, o la resolución en cada caso, deberán especificar el importe unitario de los módulos con base en el informe técnico que igualmente deberá de adjuntarse.

-d) Modalidad de estados contables: La documentación justificativa a presentar deberá incluir, en todo caso, la memoria de actuación a la que se refiere el artículo 19 de la presente Ordenanza.

3.- La justificación de las subvenciones que se concedan en régimen de concurrencia no competitiva, se regirá, en atención a su peculiaridad, por lo que en cada caso establezcan las bases reguladoras de dichas subvenciones.

**Artículo 18.- Justificantes de gasto**

Tanto en la modalidad de“cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto” como, en su caso, en la modalidad de “cuenta justificativa simplificada”, se admitirán como justificantes de gasto los siguientes documentos:
-a) Facturas
-b) Nóminas
-c) Documentos TC1 y TC2 de la Seguridad Social.
-d) Tiquets, sólo en los casos y operaciones previstas en el artículo 4º del Decreto Foral nº. 57/2004, regulador de las obligaciones de facturación, o en el precepto o norma que venga a sustituirlo.

-e) Recibís junto con el justificante del correspondiente movimiento bancario. Sólo serán admitidos cuando sean emitidos por personas físicas y el servicio prestado no sea

etengabea ez denean baino ez dira onartuko. Honako datu hauek agertu beharko dira bertan: pertsona jaulkitzailearen eta pertsona edo erakunde hartzailearen identifikazioa, sinadura, data eta eragiketaren kontzeptu xehea.

-f) Autolikidaziorako orriak. Norbere langileen joan-etorri, mantenu eta ostatuagatiko gastuak egiaztatzeko baino ez dira onartuko, eta egotzitako gastuaren egiaztagiriak erantsi beharko dira.

-g) Merkataritza-trafikoan fakturen baliokidea den froga-balioa edo eraginkortasun administratiboa daukaten beste agiri batzuk.

**19. artikulua.- Jarduketa Memoria**

1.- Edozein justifikazio-modalitate erabilita ere, bai dirulaguntza zuzenean ematen denean eta bai norgehiagoka-araubidearen arabera ematen denean ere, dirulaguntzen aplikazio materiala egokia dela egiaztatu ahal izateko, egindako jardueren eta lortutako emaitzen berri ematen duen Jarduketa Memoria erantsi beharko da onuradunek aurkeztu beharreko egiaztagirietan. Hala badagokio, honako hauexek erantsi beharko dira memorian: dirulaguntzaren helburu izan diren programak, proiektuak, ekitaldiak edo jarduerak sustatzeko edo betearazteko erabilitako argitalpenen, material inprimatuen edo euskarri elektronikoko materialen, iragarki-kartelen… ale edo kopia bat. Aipatutako material horietan guztietan, Arrigorriagako Udalaren irudi instituzionala agertu beharko da, bai eta finantziazio publiko horri buruzko aipamena edo irudi-testua ere.

2.- Diru-laguntzaren helburua erakundeari eustea, bertako jarduerak modu generikoan kudeatzea edo ustiapen-defizitari aurre egitea bada, nahikoa izango da erakundeak dirulaguntzari dagokion ekitaldian egindako jarduerari buruzko Memoria Orokorra aurkeztea.

3.- Jarduketa Memoriak edo, hala badagokio, Memoria Orokorrak sexuaren arabera aztertuta eta zatikatuta azaldu beharko dute nolako emaitzak lortu diren jarduera, programa eta proiektu horietan parte hartzean.

**20. artikulua.- Azpikontratazioa**

Oinarri Arautzaileek (edo, dirulaguntza zuzenean ematen denean, hitzarmenak edo ebazpenak) kasuan-kasuan bestelakorik esaten ez badute , onuradunak zuzenean egin beharko du dirulaguntza jasoko duen jarduera, eta, beraz, ezin izango du azpikontratatu. Azpikontratazioaren aukera erabiltzen baldin bada, betiere bete beharko dira dirulaguntzei buruzko araudi orokorrean zehazten diren mugak eta baldintzak.

habitual ni continuado en el tiempo. Deberán incluir identificación de la persona emisora y de la persona o entidad receptora, firma, fecha y concepto detallado de la operación.

-f) Hojas de autoliquidación. Sólo serán admisibles para justificación de gastos de desplazamiento, manutención y alojamiento del personal propio y deberán incluir los justificantes del gasto imputado.

-g) Otros documentos con valor probatorio equivalente a las facturas en el tráfico mercantil o con eficacia administrativa.

**Artículo 19.- Memoria de actuación**

1.- Tanto en los supuestos de concesión directa como en los de concurrencia competitiva, cualquiera que sea la modalidad de justificación que se utilice, y al objeto de poder comprobar la correcta aplicación material de las subvenciones, la documentación justificativa a aportar por las personas o entidades beneficiarias deberá incluir, en todo caso, una Memoria de Actuación con indicación de las actividades realizadas y los resultados obtenidos. A la Memoria se deberán adjuntar, en su caso, un ejemplar o copia de las publicaciones, materiales impresos o en soporte electrónico, carteles anunciadores, etc. utilizados como elementos de promoción o ejecución de los programas, proyectos, eventos o actividades objeto de la subvención. Todos los referidos materiales deberán incluir la imagen institucional del Ayuntamiento de Arrigorriaga, con mención o leyenda relativa a dicha financiación pública.

2.- En el caso de que la subvención se dirija al mantenimiento de una entidad, la gestión genérica de sus actividades o la cobertura de un déficit de explotación, será suficiente la presentación de una Memoria Global de la actividad de la entidad desarrollada durante el ejercicio al que se impute la subvención.

3.- La Memoria de Actuación, o en su caso la Memoria Global deberá describir los resultados de participación en actividades, programas y proyectos, de forma desagregada y analizados por sexo.

**Artículo 20.- Subcontratación**

Salvo lo que en cada caso establezcan las Bases Reguladoras (o, en los supuestos de concesión directa, el convenio o la resolución) la actividad subvencionable debe realizarse directamente por la persona o entidad beneficiaria sin posibilidad de subcontratación. La utilización de dicha posibilidad deberá hacerse con observancia, en todo caso, de los límites y las condiciones establecidas en la normativa general sobre subvenciones.

**BIGARREN KAPITULUA: JUSTIFIKAZIO ETA EGIAZTAPEN PROZEDURA**

**CAPITULO SEGUNDO: PROCEDIMIENTO DE JUSTIFICACIÓN Y COMPROBACIÓN**

**21. artikulua.- Prozedura bakarra**

Dirulaguntzak emateko erabilitako prozedura edozein dela ere, hurrengo artikuluetan arautautako prozedura bakarraren bidez justifikatu eta egiaztatu egingo dira.

**Artículo 21.- Procedimiento único**

Cualquiera que sea el procedimiento utilizado para la concesión de subvenciones, la justificación y comprobación se llevarán a cabo mediante el procedimiento único regulado en los artículos siguientes

**22. artikulua.- Instrukzioa**

1.- Organo instruktorea dirulaguntza-lerroari dagokion aurrekontu-programako arduradun teknikoa izango da.

2.- Egiaztagiriak kasuan kasuko epearen barruan aurkeztutakoan, organo instruktoreak honako instrukzio-egintza hauek egingo ditu:

-a) Datuak arakatzea, jarduera edo helburu bererako beste diru-laguntza batzuk bateratu daitezkeen egiaztatzea eta, hala badagokio, bateraezintasunak nahiz larregizko finantziazioak antzematea.
-b) Hala badagokio, azpikontrataziorako mugak betetzen direla egiaztatzea.
-c) Diru-laguntzaren aplikazio materiala egokia dela eta, kasuan-kasuan, jarduera egiten dela, helburua zein baldintzak betetzen direla edo eskatutako egoera agertzen dela egiaztatzea.
-d)Kasuan kasuko justifikazio-modalitatearen arabera, egiaztagiriak egokiak eta nahikoak direla aztertzea eta egiaztatzea.
-e) Txostena/Ebazpen proposamena egitea, gorago aipatutako puntu guztiak kontuan hartuta; eta kasuan-kasukoa proposatzea itzulketa-espedientea hasteari dagokionez edo dirulaguntza ematen duen egintzaren aldaketari dagokionez.

**Artículo 22.- Instrucción**

1.- El órgano instructor será el o la responsable técnica del programa presupuestario al que corresponda la línea de subvención.

2.- Una vez presentada la documentación justificativa en plazo, el órgano instructor practicará los siguientes actos de instrucción:

-a) Recabar datos y comprobar la posible concurrencia de otras subvenciones para la misma actividad u objeto, detectando en su caso problemas de incompatibilidad y sobrefinanciación.
-b) Comprobar, en su caso, el cumplimiento de los límites en materia de subcontratación.
-c) Comprobar la correcta aplicación material de la subvención, verificando en cada caso la realización de la actividad, el cumplimiento del fin y de las condiciones o la concurrencia de la situación exigida.
-d) Examinar y comprobar la adecuación y suficiencia de la documentación justificativa, según la modalidad de justificación que en cada caso corresponda.
-e) Elaborar el informe-propuesta de resolución, con pronunciamiento sobre todos los extremos anteriores, y proponiendo lo que en su caso proceda sobre inicio de expediente de reintegro y sobre posible modificación del acto de concesión.

**23. artikulua.- Ebazpena**

Kontu Hartzailetzak dirulaguntzaren aplikazio materialari buruz derrigorrean egin beharreko txostena aurkeztu ondoren, egiaztapen eta justifikazio prozedurari amaiera emateko ebazpena emango da Alkatetza Dekretuaren bidez.

**Artículo 23.- Resolución**

Una vez emitido el preceptivo informe de la Intervención sobre la aplicación material de la subvención, mediante Decreto de Alcaldía se dictará la resolución que ponga fin al procedimiento de justificación y comprobación.

**HIRUGARREN TITULUA: ITZULKETA ETA ZEHAPEN ARAUBIDEA**

**TITULO TERCERO: REINTEGRO Y RÉGIMEN SANCIONADOR**

**24. artikulua.- Itzulketa**

1.- Dirulaguntzen itzulketa arautzeko dirulaguntzei buruzko araudi orokorrari begiratuko zaio.

2.- Alkatetza izango da organo eskuduna itzulketa-prozedura hasteko zein ebazteko. Bestetik, espedienteari hasiera emateko egintza administratiboan izendatutakoa izango da organo instruktorea.

**Artículo 24.- Reintegro**

1.- El reintegro de subvenciones se regirá por lo dispuesto en la normativa general sobre subvenciones.

2.- La Alcaldía será el órgano competente para iniciar y para resolver el procedimiento de reintegro. El órgano instructor será el que se designe en el acto administrativo de iniciación del expediente.

**25. artikulua.- Zehapen-araubidea**

1.- Dirulaguntzei buruzko araudi orokorrean xedatutakoa izango da zehapen-araubidea.

2.-Alkatetza izango da organo eskuduna zehapen-prozedura hasteko zein ebazteko. Bestetik, espedienteari hasiera emateko egintza administratiboan izendatutakoa izango da organo instruktorea.

**XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA**

Honako udal-ordenantza hauek indarrik gabe geratuko dira:

1.-Diru-laguntzak, Sariak, Bekak eta Laguntzak arautzen dituen Ordenantza (2004/12/14ko 239. BAO. Aldaketak, 2006/05/05eko 91. BAOn eta 2009/07/23ko 139. BAOn).

2.- Hezkuntza Programei Diru-laguntzak emateko Ordenantza (2004/12/14ko 239. BAO).

3.- Euskara, Kultura, Herriko Jaiak eta Kirolak Sustatzeko eta Zabaltzeko Programei edo Jarduerei Diru-laguntzak emateko Ordenantza (2004/12/14ko 239. BAO).

4.-Euskarako Ikastaroetan Matrikulatutako eta Arrigorriagako Udalerrian Erroldatutako Ikasleei Diru-laguntzak emateko Ordenantza (2004/12/14ko 239. BAO. Aldaketa, 2007/06/08ko 113. BAOn).

5.-Garapenerako Lankidetzari Laguntzak emateko Ordenantza (2004/12/14ko 239. BAO).

6.-Arrigorriagako Udalerriko Bizitegi Higiezinetan Igogailuak Jartzeko Diru-laguntzei buruzko Ordenantza (2004/12/14ko 239. BAO).

7.- Gizabanakoei eta/edo Familiei Laguntza Sozialak emateko Udal Ordenantza (2005/05/11ko 88. BAO).

8.-2008-2009ko Ikasturtean Arrigorriagako Udal Euskaltegian Matrikulatutako Ikasleei Diru-laguntzak emateko Ordenantza (2009/05/04ko 81. BAO).

9.-Emakume eta Gizonen Berdintasuna Sustatzeko eta Zabaltzeko Programei edo Jarduerei Diru-laguntzak emateko Ordenantza (2008/02/14ko 32. BAO. Aldaketak, 2009/07/23ko 139. BAOn).

10.-Kanpo Irudia Euskaraz Txertatzeko Asmoz Arrigorriagako Elkarteei emandako Diru-laguntzei buruzko Ordenantza (2006/04/08ko 66. BAO).

11.- Euren Jarduera eta Programetan Euskara Erabiltzeagatik Arrigorriagako elkarteei emandako Diru-laguntzei buruzko Ordenantza (2006/04/08ko 66. BAO).

12.- Arrigorriagako Udalerriko Dendetan Kanpo Errotuluak Jartzeko Laguntzei buruzko Ordenantza (2006/04/08ko 66. BAO).

13.- Zerbitzugintza eta Jardueren Garapenegatiko Tasak arautzen dituen Zerga Ordenantzako F) epigrafeko “Abonatuentzako diru-laguntzak” idatz-zatia.

**Artículo 25.- Régimen sancionador**

1.- El régimen sancionador será el establecido en la normativa general sobre subvenciones.

2.- La Alcaldía será el órgano competente para iniciar y para resolver el procedimiento sancionador. El órgano instructor será el que se designe en el acto administrativo de iniciación del expediente.

**DISPOSICIÓN DEROGATORIA UNICA**

Quedan derogadas las siguientes ordenanzas municipales:

1.- Ordenanza reguladora de las subvenciones, premios, becas y ayudas (BOB nº 239, de 14/12/2004. Modificaciones en BOB nº 91, de 5/05/2006; y en BOB nº 139, de 23/07/2009)

2.- Ordenanza para la concesión de subvenciones a programas educativos (BOB nº 239, de 14/12/2004)

3.- Ordenanza para la concesión de subvenciones a programas o actividades de promoción y difusión del euskera, la cultura, las fiestas populares y deportes. (BOB nº 239, de 14/12/2004)

4.- Ordenanza para la concesión de subvenciones a alumnos matriculados en cursos de euskera empadronados en el municipio de Arrigorriaga (BOB nº 239, de 14/12/2004. Modificaciones en BOB nº 113, de 08/06/2007)

5.- Ordenanza para la concesión de ayudas para la cooperación al desarrollo (BOB nº 239, de 14/12/2004)

6.- Ordenanza para la concesión de ayudas económicas para la instalación de ascensores en inmuebles residenciales en le término municipal de Arrigorriaga. (BOB nº 239, de 14/12/2004)

7.- Ordenanza municipal para la concesión de ayudas de carácter social a individuos y/o familias (BOB nº 88, de 11/05/2005)

8.- Ordenanza para la concesión de subvenciones a los alumnos y alumnas matriculadas en el euskaltegi municipal de Arrigorriaga, correspondiente al curso 2008/2009 (BOB nº 81, de 04/05/2009)

9.- Ordenanza para la concesión de subvenciones a programas o actividades de promoción y difusión de la igualdad de mujeres y hombres (BOB nº 32, de 14/02/2008. Modificaciones en BOB nº 139, de 23/07/2009)

10.- Ordenanza para la concesión de subvenciones a las Asociaciones de Arrigorriaga para insertar en euskera la imagen externa (BOB nº 66, de 08/04/2008)

11.- Ordenanza para la concesión de subvenciones a las asociaciones de Arrigorriaga por la utilización del euskera en sus actividades y programas (BOB nº 66, de 08/04/2008)

12.- Ordenanza para la concesión de ayudas por la instalación de rótulos exteriores en los comercios del municipio de Arrigorriaga (BOB nº 66, de 08/04/2008)

13.- Apartado titulado “Subvenciones para Abonados” del epígrafe F) de la Ordenanza Fiscal reguladora de tasas por prestación de servicios y realización de actividades

**AZKEN XEDAPENA: INDARREAN SARTZEA**

Ordenantza hau, behin onartua izanez gero, indarrean sartuko da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 70-2. artikuluan xedatutakoaren arabera.

I. ERANSKINA

2010-2013ko PLAN ESTRATEGIKOAN ZEHAZTUTAKO DIRULAGUNTZA LERROAK

**1.- KULTURA ARLOA**

1.1. LERROA. JARDUERA, PROGRAMA ETA PROIEKTU KULTURALAK.

a) Helburua: kultura, arteak, zientziak eta letrak sustatzeko, zabaltzeko eta abian jartzeko programak, proiektuak eta jarduerak finantzatzea. Honako hauexek izango dira, besteak beste: animazio soziokulturaleko, aisialdiko eta astialdiko jarduerak; 1.2. lerroan aipatzen ez diren ikuskizunak eta jai-ekitaldien antolaketa; tradizioen eta folklorearen berreskurapena eta euspena; azterketen eta ikerketen garapena eta zabalkundea; eta gure euskal kulturako era guztietako adierazpideak sustatzeko jarduera guztiak.
b) Hartzaileak: irabazi-asmorik gabeko erakundeak edo elkarteak, betiere euren jarduerak Arrigorriagan garatzen badituzte edo, udalaz gaineko programak izanda, Arrigorriagako biztanleen artean eragin zuzenik badute. Era berean, nortasun juridikorik gabeko pertsona fisikoak eta elkarketak ere onartzen dira, betiere euren jarduerak Arrigorriagan garatzen badituzte.

1.2. LERROA. HERRIKO JAIAK ETA AUZOETAKO URTEKO JAIAK.

a) Helburua: Arrigorriagako herriko jaietako eta auzoetako urteko jaietako egitarauen antolaketa osoa finantzatzea.

b) Hartzaileak: auzokideen elkarteak eta erakundeak, betiere euren helburu zehatza urteko edo aldian aldiko jaiak antolatzea bada.

**2.- KIROL ARLOA**

2.1. LERROA. KIROL PROGRAMAK, PROIEKTUAK ETA JARDUERAK.

a) Helburua: kirolak sustatzeko, zabaltzeko eta abian jartzeko programak, proiektuak eta jarduerak finantzatzea. Honako hauexek izango dira, besteak beste: aisialdiko eta astialdiko kirol-animazioko jarduerak; kirol-arloko ikuskizunen eta ekitaldien antolaketa; emakumeen kirol-jarduna sustatzen duten programak; kirolak hautatu eta egiteko orduan, genero-estereotipoak desagerrarazi nahi dituzten jarduerak;

**DISPOSICIÓN FINAL: ENTRADA EN VIGOR:**

La presente ordenanza entrará en vigor una vez aprobada, con arreglo a lo dispuesto en el artículo 70-2 de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

ANEXO I

LINEAS DE SUBVENCION DEFINIDAS EN EL PLAN ESTRATÉGICO 2010-2013

**1.-AREA DE CULTURA**

LÍNEA 1.1.- ACTIVIDADES, PROGRAMAS Y PROYECTOS CULTURALES.

a) Objeto: financiación de programas, proyectos y actividades de promoción, difusión y práctica de la cultura, las artes, las ciencias y las letras, abarcando, entre otras, las actividades de animación socio-cultural, ocio y tiempo libre, organización de espectáculos y eventos festivos no incluidos en la línea 1.2, recuperación y mantenimiento de las tradiciones y el folklore, realización y difusión de estudios e investigaciones y todas aquellas que hagan referencia a la promoción de nuestra cultura vasca en sus distintas manifestaciones.
b) A quién se dirigen: entidades o asociaciones sin ánimo de lucro que desarrollen sus actividades en Arrigorriaga, o tratándose de programas supramunicipales, que tengan afección directa para la población de Arrigorriaga. También se admiten personas físicas y agrupaciones sin personalidad jurídica que desarrollen sus actividades en Arrigorriaga.

LINEA 1.2.- FIESTAS PATRONALES Y ANUALES DE LOS BARRIOS.

a) Objeto: financiación de la organización completa de los programas de fiestas patronales, así como de las fiestas anuales de los barrios de Arrigorriaga.
b) A quién se dirigen: asociaciones vecinales y entidades cuyo objeto específico sea la organización de las fiestas anuales o periódicas en cada caso.

**2.-AREA DE DEPORTES**

LINEA 2.1.- PROGRAMAS, PROYECTOS Y ACTIVIDADES DEPORTIVAS.

a) Objeto: financiación de programas, proyectos y actividades de promoción, difusión y práctica del deporte abarcando, entre otras, las actividades de animación deportiva en el ocio y tiempo libre, organización de espectáculos y eventos deportivos, programas que fomenten la práctica deportiva de las mujeres y aquellos orientados a eliminar estereotipos de género en la elección

kirol-tradizioen berreskurapena eta euspena; kirol-arloko azterketen eta ikerketen garapena eta zabalkundea; eta gure herri-kiroletako era guztietako adierazpideak sustatzeko jarduera guztiak.

b) Hartzaileak: irabazi-asmorik gabeko erakundeak edo elkarteak, betiere euren jarduerak Arrigorriagan garatzen badituzte edo, udalaz gaineko programak izanda, Arrigorriagako biztanleen artean eragin zuzenik badute. Era berean, nortasun juridikorik gabeko pertsona fisikoak eta elkarketak ere onartzen dira, betiere euren jarduerak Arrigorriagan garatzen badituzte.

y práctica del deporte, recuperación y mantenimiento de las tradiciones deportivas, realización y difusión de estudios e investigaciones en materia deportiva, y todas aquellas que hagan referencia a la promoción de nuestro deporte vasco en sus distintas manifestaciones.

b) A quién se dirigen: entidades o asociaciones sin ánimo de lucro que desarrollen sus actividades en Arrigorriaga, o tratándose de programas supramunicipales, que tengan afección directa para la población de Arrigorriaga. También se admiten personas físicas y agrupaciones sin personalidad jurídica que desarrollen sus actividades en Arrigorriaga.

2.2. LERROA. KIROLDEGIKO ERABILTZAILEENTZAKO BEKAK.

a) Helburua: egoera ekonomiko txarragoa dutenei kirol-jardunak egin ahal izango dituztela bermatzea, kirol-jardun horiek herritarren bizi-kalitatea hobetu eta garapen integrala sustatzen dutelako gaur egungo aisialdi-gizartean. Era berean, gorputz eta kirol arloko jarduerak eskubidea dira, osasungarriak dira, olgeta bultzatzen dute eta pertsona guztien harremanak zein integrazio soziala hobetzen dituzte. Hori dela eta, botere publikoek sustatu egin behar dituzte.

b) Hartzaileak: Arrigorriagan erroldatutako pertsona fisikoak, betiere urteko abonuetako titularrak badira eta euren baliabideak kirol-instalazioak erabiltzeagatiko tasan edo prezio publikoan zehaztutako kostuari aurre egiteko bestekoak ez badira.

LINEA 2.2.- BECAS A USUARIOS Y USUARIAS DEL POLIDEPORTIVO.

a) Objeto: asegurar el acceso real a las prácticas deportivas de las personas más desfavorecidas económicamente, entendiendo dichas prácticas como elementos que contribuyen a mejorar la calidad de vida de la ciudadanía y su desarrollo integral como personas en la sociedad del ocio en la que vivimos . Asimismo se considera que las actividades físico-deportivas son un derecho, contribuyen a la salud, potencian la recreación y mejoran la relación e integración social de todas las personas, correspondiendo a los poderes públicos su promoción.

b) A quién se dirigen: personas físicas, empadronadas en Arrigorriaga, titulares de abonos anuales y cuyos recursos resulten insuficientes para hacer frente al coste establecido por la tasa o precio público para la utilización de las instalaciones deportivas.

## 3.- HEZKUNTZA ARLOA

3.1. LERROA. ESKOLAZ KANPOKO ETA HEZKUNTZAKO JARDUERA OSAGARRIAK.

a) Helburua: eskolaz kanpoko eta hezkuntzako jarduera osagarriak finantzatzea, hau da, ikastetxe publikoek eta bertako guraso-elkarteek egindakoak eta hezkuntza-arloko administrazio eskudunak estali edo finantzatzen ez dituenak. Honako hauexek finantzatu ahal izango dira laguntzon bitartez: zenbait helburutarako eskolaz kanpoko proiektu bereziak, programa bereziak edo jarduerak (osasun-arloko hezkuntza, astialdiko hezkuntza, kirolak, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko hezkidetza-programak, irakaskuntzaren kalitatearen sustapena, eskola-kudeaketaren hobekuntza, gurasoen eskola…). Era berean, inbertsio zehatzen kostuak ere finantzatu ahal izango dira (ezohiko ikasmateriala, bi urteko umeentzako laguntzaileak…).

b) Hartzaileak: Arrigorriagako udalerrian bertan kokatutako ikastetxeak. Udalerritik kanpo kokatutako ikastetxe publikoak, betiere bertan Arrigorriagako udalean

## 3.- AREA DE EDUCACIÓN

LINEA 3.1.- ACTIVIDADES EXTRAESCOLARES Y EDUCATIVAS COMPLEMENTARIAS

a) Objeto: financiación de actividades extraescolares y educativas complementarias, entendiendo por tales aquellas que siendo realizadas por los centros públicos de enseñanza y sus correspondientes asociaciones de madres y padres no estén cubiertas o financiadas por la Administración competente en materia de Educación. Las ayudas podrán financiar proyectos específicos, programas especiales o actividades extraescolares con muy diverso objeto (educación en la salud, en el tiempo libre, deporte, programas coeducativos para eliminación de desigualdades entre mujeres y hombres, promoción de la calidad de la enseñanza y mejora de la gestión escolar, escuela de madres y padres, etc......). También podrán financiarse costes de inversiones concretas (material didáctico no habitual, personal auxiliar para niños y niñas de dos años, etc...)

b) A quién se dirigen: centros de enseñanza pública situados dentro del término municipal de Arrigorriaga. Centros de enseñanza pública situados fuera del término municipal,

erroldatutako ikasleak matrikulatuta badaude eta kasuan kasuko udalerriekin hezkuntza-arloko hitzarmen administratiborik badago. Era berean, aurrean aipatutako ikastetxeetako guraso-elkarteak ere izan ahalko dira hartzaileak.

pero que tengan matriculado alumnado censado en el municipio de Arrigorriaga, siempre que exista convenio administrativo en materia de educación con los Ayuntamientos respectivos. También se dirigen a la asociaciones de madres y padres de los centros antedichos.

## 4.- EUSKARA ARLOA

4.1. LERROA. TALDEEK ETA ELKARTEEK EUSKARA ZUZENEAN SUSTATZEKO JARDUERAK, PROGRAMAK ETA PROIEKTUAK.

a) Helburua: euskara zuzenean sustatzeko jarduerak, programak eta proiektuak finantzatzea. Honako hauexek izango dira, besteak beste: a) euskaraz oso-osorik egindako programak, jarduerak eta proiektuak; eta b) euskara sustatzeko helburu bakarra daukaten programak, jarduerak eta proiektuak.

b) Hartzaileak: euskaraz oso-osorik egindako programa, jarduera eta proiektuetarako diru-laguntzetan: irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta elkarteak eta nortasun juridikorik gabeko elkarketak, betiere euren jarduerak Arrigorriagan garatzen badituzte. Euskara sustatzeko helburu bakarra daukaten programa, jarduera eta proiektuetarako diru-laguntzetan: irabazi-asmorik gabeko erakundeak edo elkarteak, betiere euren jarduerak Arrigorriagan garatzen badituzte edo, udalaz gaineko programak izanda, Arrigorriagako biztanleen artean eragin zuzenik badute.

4.2. LERROA. EUSKARA ETA HIZKUNTZA NORMALKUNTZA SUSTATZEKO HELBURU BAKARRA DAUKATEN ERAKUNDEEI EUSTEKO LAGUNTZAK.

a) Helburua: euren izaera edozein dela ere, publikoa edo pribatua, legearen arabera eratutako erakundeei eusteko laguntzak ematea, betiere euren helburu bakarra euskara eta hizkuntza-normalkuntza oro har edo sektore berezi batean edo batzuetan sustatzea bada. Diru-laguntzek erakunde horietako jarduerak modu generikoan kudeatzea izango dute xede, betiere jarduera generiko horiek nola edo hala Arrigorriagako biztanleen mesederako badira, euren artean eraginik badute edo eurekin inolako zerikusirik badute.

b) Hartzaileak: euren izaera edozein dela ere, publikoa edo pribatua, legearen arabera eratutako erakundeak, betiere euren helburu bakarra euskara eta hizkuntza-normalkuntza oro har edo sektore berezi batean edo batzuetan sustatzea bada. Izan ere, udal-eremukoak edo udalaz gaineko eremukoak izan ahalko dira.

## 4.- AREA DE EUSKARA

LINEA 4.1.- ACTIVIDADES, PROGRAMAS Y PROYECTOS DE PROMOCION DIRECTA DEL EUSKARA POR PARTE DE GRUPOS Y ASOCIACIONES.-

a) Objeto: financiación de actividades, programas y proyectos que tengan como objetivo la promoción directa del euskara, entendiendo como tales: a) programas, actividades y proyectos realizados íntegramente en euskara; y b) programas, actividades y proyectos cuyo fin exclusivo sea la promoción y el impulso del euskara.

b) A quién se dirigen: en el caso de las subvenciones para programas, proyectos y actividades realizados íntegramente en euskara: entidades y asociaciones sin ánimo de lucro, así como agrupaciones sin personalidad jurídica que desarrollen sus actividades en Arrigorriaga. En el caso de programas, actividades y proyectos cuyo fin exclusivo sea la promoción y el impulso del euskara: entidades o asociaciones sin ánimo de lucro que desarrollen sus actividades en Arrigorriaga, o tratándose de programas supramunicipales, que tengan afección directa para la población de Arrigorriaga.

LINEA 4.2.- AYUDAS AL MANTENIMIENTO DE ENTIDADES QUE TENGAN COMO FIN EXCLUSIVO LA PROMOCION DEL EUSKARA Y LA NORMALIZACION LINGÜÍSTICA.-

a) Objeto: ayudas al mantenimiento de entidades legalmente constituidas, cualquiera que sea su naturaleza, pública o privada, cuyo objeto exclusivo sea la normalización lingüística o la promoción del euskara, en términos generales o por referencia a uno o varios ámbitos sectoriales particulares. Las subvenciones se otorgarán para la gestión genérica de las actividades de las referidas entidades, siempre que pueda deducirse que tales actividades genéricas se refieren, afectan o benefician de algún modo a la población de Arrigorriaga.

b) A quién se dirigen: entidades legalmente constituidas, cualquiera que sea su naturaleza, pública o privada, cuyo objeto exclusivo sea la normalización lingüística o la promoción del euskara, en términos generales o por referencia a uno o varios ámbitos sectoriales particulares, pudiendo ser tanto de ámbito municipal como supramunicipal.

4.3. LERROA. EUSKARA IKASTEKO BANAN-BANAKO BEKAK.

a) Helburua: Arrigorriagan erroldatutako pertsona fisikoek Udal Euskaltegian edo beste zentro batzuetan euskararen ikaskuntzan eta hobekuntzan egiaztatutako aprobetxamenduaren finantziazio partziala ematea. Udal Euskaltegiko ikasleei finantziazio osagarria ematea, behar beste baliabiderik ez dutenean. Abusutik Udal Euskaltegira joateko gastuetarako finantziazio osagarria ematea.

b) Hartzaileak: Arrigorriagan erroldatutako eta Udal Euskaltegian edo beste zentro batzuetan matrikulatutako pertsona fisikoak. Baliabide nahikorik ez edukitzeagatiko laguntza osagarria Udal Euskaltegian matrikulatutakoentzat baino ez da izango.

4.4. LERROA. ELKARTE ETA DENDEN HIZKUNTZA PAISAIAREN NORMALKUNTZA.

a) Helburua: euskararen agerpen idatzia sustatzeko asmoz, udalerriko elkarte zein denden hizkuntza-paisaiako eta kanpo-irudiko elementuetan egindako gastuak finantzatzea.

b) Hartzaileak: Arrigorriagan kokatutako dendak eta euren jarduera Arrigorriagako udalerrian garatzen duten kultur, kirol, auzo, hezkuntza eta astialdi arloko elkarteak.

4.5. LERROA. IKASTOLEN JAIAK.

a) Helburua: ikastolen urteko jaiak egiteagatiko gastuak finantzatzen laguntzea: Ibilaldia, Kilometroak, Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez eta Herri Urrats.

b) Hartzaileak: kasuan kasuko ikastola-elkarteak.

LINEA 4.3.- BECAS INDIVIDUALES AL ESTUDIO DEL EUSKARA.-

a) Objeto: financiación parcial del aprovechamiento acreditado por parte de personas físicas empadronadas en Arrigorriaga en el estudio y perfeccionamiento del euskara realizado en el Euskaltegi municipal, o en otros centros. Financiación complementaria para el alumnado del Euskaltegi municipal que carezca de recursos suficientes. Financiación complementaria para los gastos de desplazamiento para acudir al Euskaltegi municipal desde Abusu.

b) A quién se dirigen: personas físicas empadronadas en Arrigorriaga matriculadas en el Euskaltegi municipal o en otros centros. La ayuda complementaria por carencia de recursos sólo es para personas matriculadas en el Euskaltegi municipal.

LINEA 4.4.- NORMALIZACION DEL PAISAJE LINGÜÍSTICO DE ASOCIACIONES Y COMERCIOS.-

a) Objeto: financiación de los gastos realizados en elementos que formen parte del paisaje lingüístico y de la imagen externa de las asociaciones y de los comercios del municipio con el fin de impulsar la presencia escrita del euskara.

b) A quién se dirigen: comercios sitos en Arrigorriaga y asociaciones culturales, deportivas, vecinales, educativas y de tiempo libre que realicen su actividad en el municipio de Arrigorriaga.

LINEA 4.5.- FIESTAS DE LAS IKASTOLAS.-

a) Objeto: ayudar a la financiación de los gastos por la celebración de las fiestas anuales de las Ikastolas: Ibilaldia, Kilometroak, Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez y Herri Urrats.

b) A quién se dirigen: a cada una de las agrupaciones de ikastolas correspondiente.

**5.- BERDINTASUN ARLOA**

5.1. LERROA. EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNA SUSTATZEKO JARDUERAK, PROGRAMAK ETA PROIEKTUAK.

a) Helburua: emakume eta gizonen berdintasun-maila handitzeko programak, proiektuak eta jarduerak finantzatzea, emakumeen partaidetza areagotzeko eta gizartea bi sexuen aukera-berdintasunaren inguruan sentsibilizatzeko.

b) Hartzaileak: irabazi-asmorik gabeko erakundeak edo elkarteak, betiere euren jarduerak Arrigorriagan garatzen badituzte edo, udalaz gaineko programak izanda, Arrigorriagako biztanleen artean eragin zuzenik badute.

**5.- AREA DE IGUALDAD**

LINEA 5.1.- ACTVIDADES, PROGRAMAS Y PROYECTOS DE PROMOCION DE LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES.-

a) Objeto: financiación de programas, proyectos y actividades dirigidas a promover mayores cuotas de igualdad entre mujeres y hombres, incrementando la participación de éstas, así como la sensibilización de la sociedad en general en torno a la igualdad de oportunidades entre ambos sexos.

b) A quien se dirigen: entidades o asociaciones sin ánimo de lucro que desarrollen sus actividades en Arrigorriaga o tratándose de programas supramunicipales, que tengan afección directa para la población de Arrigorriaga.

Era berean, nortasun juridikorik gabeko elkarketak ere onartzen dira, betiere euren jarduerak Arrigorriagan garatzen badituzte.

También se admiten agrupaciones sin personalidad jurídica que desarrollen sus actividades en Arrigorriaga.

## 6.- GIZARTE EKINTZAREN ARLOA

## 6.- AREA DE ACCIÓN SOCIAL

### 6.1. LERROA. GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK.

a) Helburua: Eusko Jaurlaritzaren 199/1999 Dekretuan edo haren ordezko arautegian zehaztutako laguntzak ematea. Gaur egun, aldian aldikoak ez diren diru-laguntza-prestazio ekonomikoak dira, eta ohiko edo ezohiko gastu zehatzei aurre egiteko beste baliabiderik ez daukatenentzat dira, gastu horiek behar-beharrezkoak direlako gizarte-bazterketa prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko.

b) Hartzaileak: banan-banako pertsona fisikoak, euren kabuz edo familia-unitatean sartuta, betiere Arrigorriagan erroldatuta badaude eta gutxieneko epealdian EAEn bizi izan badira.

### LINEA 6.1.- AYUDAS DE EMERGENCIA SOCIAL.-

a) Objeto: a Ayudas definidas en el Decreto del Gobierno Vasco nº 199/1999, o normativa que venga a sustituirla. Hoy se definen como prestaciones no periódicas de naturaleza económica y subvencional destinadas a aquellas personas cuyos recursos resulten insuficientes para hacer frente a gastos específicos de carácter ordinario o extraordinario, necesarios para prevenir, evitar o paliar situaciones de marginación social.

b) A quién se dirigen: personas físicas individuales como tales o como integradas en una unidad familiar, empadronadas en Arrigorriaga con un tiempo mínimo de residencia en la CAPV

### 6.2. LERROA. GLLen LAGUNTZA OSAGARRIAK.

a) Helburua: Arrigorriagako udalerriko pertsonei eta/edo familiei gizarte-laguntzak ematea, gizarte-larrialdietarako laguntzetan estalita ez dauden oinarrizko gastu zehatzak ordaintzeko, ezarri beharreko arautegiko betekizunen bat betetzen ez dutelako edo laguntza horien bidez aurretiaz emandako zenbatekoak osatu behar direlako.

b) Hartzaileak: banan-banako pertsona fisikoak, euren kabuz edo familia-unitatean sartuta, betiere Arrigorriagan erroldatuta badaude eta gutxieneko epealdian udalerrian bizi izan badira.

### LINEA 6.2.- AYUDAS COMPLEMENTARIAS A LAS A.E.S.-

a) Objeto: ayudas de carácter social a personas y/o familias del municipio de Arrigorriaga con destino a sufragar gastos específicos de carácter básico no cubiertos por las Ayudas de Emergencia Social por no reunir alguno de los requisitos establecidos en su normativa de aplicación o porque se precise complementar las cantidades concedidas previamente mediante tales ayudas.

b) A quién se dirigen: personas físicas individuales como tales o como integradas en una unidad de convivencia, empadronadas en Arrigorriaga con un tiempo mínimo de residencia en el municipio.

### 6.3. LERROA. GIZARTE EKINTZAKO JARDUERAK GARATZEN DITUZTEN ERAKUNDEEI EUSTEKO LAGUNTZAK.

a) Helburua: euren integrazio soziala edo bizi-kalitatea hobetzeko asmoz, egoera txarragoan dauden taldeak atenditzeko jarduerak eta programak garatzen dituzten erakundeei eusteko laguntzak ematea. Laguntzek, hain zuzen ere, erakundeetako jardueren gastu orokorrak eta kudeaketa generikoa estaltzea dute helburu.

b) Hartzaileak: laguntza-lerroaren helburua betetzen duten irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak, betiere euren jarduera Arrigorriagako udalerrian garatzen badute edo jarduera hori Arrigorriagan bizi direnentzat antolatu bada.

### LINEA 6.3.- AYUDAS AL MANTENIMIENTO DE ENTIDADES QUE DESARROLLAN ACTIVIDADES DE ACCION SOCIAL.-

En cuanto a otros posibles incumplimientos, se tendrá en cuenta la naturaleza del incumplimiento, la intencionalidad y la reiteración.

13.- Azpikontratazioa.

Oro har, dirulaguntzen onuradunak diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren %50etik gorakoa ez den ehunekoraino azpikontratatu ahal izango du. Behar bezala justifikatutako salbuespenezko egoeretan, azpikontratazioak ehuneko hori gainditu ahal izango du, eta diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren %100ekoa ere izan ahalko da. Halakoetan, deialdiaren berri emateko egintza administratiboan, behar bezala arrazoitu beharko da %50eko mugatik gora azpikontratatzeko aukera.

Kasu guztietan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 29. artikuluko 3. eta 7. paragrafoetan (edo, hala izatekotan, haren ordez emango den arau orokorrean) adierazten diren mugak eta betekizunak bete beharko dira.

13.- Subcontratación:

Con carácter general, la persona o entidad beneficiaria de la subvención podrá subcontratar hasta un porcentaje que no exceda del 50 por 100 del importe de la actividad subvencionada. En situaciones excepcionales debidamente justificadas, la subcontratación podrá superar dicho porcentaje, e incluso alcanzar el 100 por 100 del importe de la actividad subvencionada. En tales casos, en el acto administrativo mediante el que se haga pública la convocatoria, deberá motivarse debidamente la posibilidad de subcontratación por encima del límite del 50 por 100.

En todos los casos, serán de aplicación los límites y exigencias de los apartados 3 y 7 del artículo 29 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, o normativa general que venga a sustituirla.

## II-3. ERANSKINA

**EUSKARA ZUZENEAN SUSTATZEKO PROGRAMA, PROIEKTU ETA JARDUEREI NORGEHIAGOKA ARAUBIDEPEAN DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK.**

1.- Dirulaguntzaren helburua.

Euskara zuzenean sustatzeko jarduerak, programak eta proiektuak izan ahalko dira diru-laguntzaren helburua. Honako hauexek izango dira, besteak beste: a) euskaraz oso-osorik egindako programak, jarduerak eta proiektuak; eta b) euskara sustatzeko helburu bakarra daukaten programak, jarduerak eta proiektuak.

2.- Onuradunen betekizunak.

Dirulaguntzei buruzko araudi orokorrean eta udal-ordenantzan zehaztutako betekizun orokorrak ez ezik, honako betekizun berezi hauek ere bete beharko dira:

a) Euskaraz oso-osorik egindako programa, jarduera eta proiektuetarako; aukeran:

- Legearen arabera eratutako eta kasuan kasuko erregistroan izena emandako irabazi-asmorik gabeko erakundeak edo elkarteak izatea, betiere euren jarduerak Arrigorriagan egiten badituzte.
- Nortasun juridikorik gabeko pertsonen elkarketak izatea, betiere euren jarduerak Arrigorriagako udalerrian egiten badituzte. Halakoetan, elkarketako pertsona fisiko ordezkari edo ahalordedun bakarra izendatu beharko dute, eta behar besteko boterea eduki beharko du, elkarketak diru-laguntzako onuradun moduan dauzkan betebeharrak betetzeko.

## ANEXO II-3

**BASES REGULADORAS DEL OTORGAMIENTO DE SUBVENCIONES EN REGIMEN DE CONCURRENCIA COMPETITIVA, A PROGRAMAS, PROYECTOS Y ACTIVIDADES DE PROMOCION DIRECTA DEL EUSKERA.-**

1.-Objeto de la Subvención:

Podrán ser objeto de subvención aquellas actividades, programas y proyectos que tengan como objetivo la promoción directa del euskera, entendiendo como tales: a) programas, actividades y proyectos realizados íntegramente en euskera; y b) programas, actividades y proyectos cuyo fin exclusivo sea la promoción y el impulso del euskera.

2.- Requisitos de las entidades beneficiarias:

Además de los requisitos generales recogidos en la normativa general de Subvenciones y en la Ordenanza municipal, se exigen los siguientes requisitos específicos:

a) Para los programas, actividades y proyectos realizados íntegramente en euskera, alternativamente:

- Ser entidades o asociaciones sin ánimo de lucro, legalmente constituidas y registradas en el Registro correspondiente y que desarrollen sus actividades en el municipio de Arrigorriaga.
- Ser agrupaciones de personas sin personalidad jurídica que desarrollen sus actividades en el municipio de Arrigorriaga. En tal caso deberán nombrar una persona física representante o apoderada única de la agrupación, con poderes bastantes para cumplir las obligaciones de ésta como beneficiaria de la subvención.

b) Euskara sustatzeko helburu bakarra daukaten programa, jarduera eta proiektuetarako:

- Legearen arabera eratutako eta kasuan kasuko erregistroan izena emandako irabazi-asmorik gabeko erakundeak edo elkarteak izatea, betiere euren jarduerak Arrigorriagan egiten badituzte edo, udalaz gaineko jarduerak, programak edo proiektuak izanda, Arrigorriagako biztanleen artean eragin zuzenik badute.

3.- Eskabideak aurkezteko modua eta epea.

Kasuan kasuko deialdian adierazitakoa izango da epea.

Eskabideak instantzia normalizatuaren bitartez aurkeztuko dira Udaleko Erregistro Orokorrean, bai eta Internet bidez ere, azken sistema hori modu teknikoan prestatuta dagoenean. Era berean, prozedura administratiboari buruzko araudian aurreikusitako lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Erantsi beharreko agiriak: deialdian adierazitako agiri zehatzak ez ezik, honako hauexek ere bai:

a) Dirulaguntza eskatzeko inprimaki normalizatu bakarra, behar bezala beteta. Bereziki, honako atal hauek ondo bete beharko dira: 1) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorreko 13. artikuluko debekuak ematen ez direla eta zerga-arloko zein Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean daudela egiaztatzeko adierazpen arduratsua; eta 2) eskatutako beste diru-laguntza batzuen datuei buruzko adierazpen arduratsua.
b) Dirulaguntza-eskabidearen helburu den programa, proiektua edo jarduera, bai eta memoria eta aurrekontua ere (diru-sarreren eta gastuen aurreikuspena).
c) Elkarteko estatutuen kopiak eta hirugarrenen fitxa (betiere udalak dagoeneko ez badu).

Programek, proiektuek edo jarduerek oinarri hauetakoak ez beste dirulaguntza-lerro batzuk eskatu ahal dituztenean, nahikoa izango da eskabide bakar bat aurkeztea.

4.- Diru-laguntza emateko prozedura.

Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko 10. artikuluan araututako norgehiagoka-prozedura, hain zuzen ere.

5.- Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak.

a-) Aurkeztutako jarduera, proiektu edo programaren kalitatea.
b-) Jarduerak, proiektuak edo programak talde eta pertsona hartzaileen artean duen proiekzioa eta eragina.
c-) Genero-berdintasunaren arloko balioen defentsa eta sustapena.
d-) Erakunde onuradunak Arrigorriagako udalerrian dauzkan agerpena eta sustraiak.

b) Para los programas, actividades y proyectos cuyo fin exclusivo sea la promoción y el impulso del euskera:

- Ser entidades o asociaciones sin ánimo de lucro, legalmente constituidas y registradas en el Registro correspondiente y que desarrollen sus actividades en el municipio de Arrigorriaga o, tratándose de actividades, programas o proyectos supramunicipales, tengan una afección directa para la población de Arrigorriaga.

3.- Forma y Plazo de presentación de las solicitudes:

El Plazo será el que señale la convocatoria correspondiente.

Las solicitudes se presentarán mediante instancia normalizada que se entregará en el registro general del Ayuntamiento, o telemáticamente por internet, en el momento en que este último canal esté técnicamente habilitado. También se podrá presentar en los lugares previstos en la normativa de procedimiento Administrativo.

Documentación a adjuntar: además de la específica, que señale la convocatoria, la siguiente en todo caso:

a) Impreso normalizado único de solicitud de subvención debidamente cumplimentado, incluyendo en todo caso la cumplimentación de los apartados correspondientes a 1) Declaración responsable de no concurrencia de las prohibiciones del Art. 13 LGS y de estar al corriente en las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, y 2) Declaración responsable conteniendo datos de otras subvenciones solicitadas.
b) Programa, proyecto o actividad para la que se solicita, incluyendo una memoria y un presupuesto (previsión de ingresos y gastos).
c) Copias de estatutos de la Asociación y ficha de terceros (sólo si no obran ya en poder del Ayuntamiento)

En los casos en los que los programas, proyectos o actividades sean susceptibles de acogerse a otras líneas de subvención distintas de la correspondiente a las presentes bases, será suficiente la presentación de una única solicitud

4.- Procedimiento de concesión de la subvención:

El de concurrencia competitiva, regulado en el artículo 10 de la Ordenanza General de Subvenciones

5.- Criterios objetivos de otorgamiento de la subvención:

a-) Calidad de la actividad, proyecto o programa presentado

b-) Proyección e incidencia de la actividad, proyecto o programa en los colectivos y personas destinatarias.
c-) Incorporación de la defensa y promoción de valores en materia de Igualdad de género.
d-) Presencia y arraigo de la entidad beneficiaria en el municipio de Arrigorriaga

Kasuan kasuko deialdian zehaztuko da zein den aurreko irizpide bakoitzari dagokion haztapen erlatiboa.

La ponderación relativa atribuida a cada uno de los anteriores criterios se determinará en la convocatoria correspondiente.

6.- Dirulaguntzaren zenbatekoa.

6.- Cuantía de la subvención:

Dirulaguntzaren zenbatekoa kasuan kasuko deialdi publikoan adierazitako jarduera, programa edo proiektuaren azken kostuaren ehunekoaren arabera zehaztuko da, eta jarduera, programa edo proiektuko gehienezko muga ere zehaztuko da deialdian bertan.

La cuantía de la subvención quedará determinada por el porcentaje del coste final de la actividad, programa o proyecto que se especifique en la correspondiente convocatoria pública con el límite máximo por actividad, programa o proyecto que igualmente se precise en la convocatoria.

Aparte hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk kontuan hartuta, diru-laguntzen zenbatekoa ezingo da inolaz ere izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

El importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

7.- Organo eskudunak eta ebazpena jakinarazteko epea.

7.- Órganos competentes y plazo en que será notificada la resolución:

Organo instruktorea: deialdian besterik adierazi ezean, kasuan kasuko aurrekontu-programako arduradun teknikoa.

Órgano Instructor: Salvo que la convocatoria señale otro distinto, la o el responsable Técnico del programa presupuestario correspondiente.

Kide anitzeko balioespen-organoa: Presidentetza: kasuan kasuko aurrekontu-programako arduradun politikoa. Idazkaritza: programa bereko arduradun teknikoa.

Órgano Colegiado de Valoración: Presidencia: el o la responsable política del programa presupuestario correspondiente; Secretaría: la o el responsable técnico del mismo programa.

Ebazpen-organoa: Alkatetza.

Órgano Resolutorio: la Alcaldía

Ebazpena jakinarazteko epea: bi hilabete, gehienez ere.

Plazo en que será notificada la resolución: máximo dos meses.

8.- Dirulaguntzaren helburua betetzen dela eta jasotako fondoak erabili direla justifikatzeko epea eta modua.

8.- Plazo y forma de justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.

Dirulaguntzaren helburua betetzen dela eta jasotako fondoak erabili direla egiaztatzeko justifikazioa programaren, proiektuaren edo jardueraren betearazpena amaitu osteko hurrengo hiru hilabeteetan aurkeztu beharko da, betiere diru-laguntza eman zenekoaren hurrengo ekitaldiko martxoa amaitu baino lehen.

La justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos deberá presentarse dentro de los tres meses siguientes a la finalización de la ejecución del programa, proyecto o actividad, y en todo caso antes de que finalice el mes de marzo del ejercicio siguiente a aquél en que se concedió la subvención.

Justifikatzeko modua: gastuen egiaztagiriak eskatzen dituen justifikazio-kontua.

Forma de justificación: Cuenta Justificativa con aportación de justificantes de gasto.

Zeharkako kostuak egozteko orduan, kostu guztiaren %5erainokoak izango dira zeharkako kostuak, eta ez dira justifikatu beharko. Dena dela, aurreko guztia espedienteari erantsi beharko zaion txosten ekonomikoan oinarritu beharko da.

A efectos de imputación de costes indirectos, se consideran tales, no requiriendo, por tanto, justificación, los que supongan hasta el 5 % del coste total, lo que se fundamentará en el estudio económico que se deberá incorporar al expediente

9.- Ordainketen araubidea.

9.- Régimen de Pagos.-

Oro har, diru-laguntza aldez aurretik ordainduko da oso-osorik, hau da, justifikazio eta egiaztapen prozedura amaitu baino lehen. Deialdian bertan adieraziko da zer epe edo

Con carácter general el pago total de la subvención será anticipado, esto es, con anterioridad a la conclusión del procedimiento de justificación y comprobación. La

unetan ordainduko den dirulaguntza. Deialdian besterik adierazi ezean, ez da inolako bermerik eman beharko, dirulaguntza aldez aurretik ordaintzeko orduan.

convocatoria precisará el plazo o momento en que se hará efectivo el pago. Salvo que la convocatoria establezca lo contrario, no será necesaria la prestación de garantía alguna para el pago anticipado.

10.- Ebazpena aldatzeko moduko inguruabarrak.

10.- Circunstancias que podrán dar lugar a modificación de la resolución.-

Dirulaguntza ematean kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, emakida-ebazpena aldatu ahal izango da.

La alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

Deialdi-egintza administratiboan, behar besteko kasuak adierazi ahal izango dira, dirulaguntza eman duen ebazpenaren edukiaren aldaketa eskatzeko aukera izan dezan onuradunak. Aldaketa- eskaria baimendu ahal izango da, betiere hirugarrenen kalterako ez bada.

El acto administrativo de convocatoria podrá establecer los supuestos en los que, una vez recaída la resolución de concesión, la entidad beneficiaria puede solicitar la modificación de su contenido, que podrá autorizarse siempre que no haya perjuicio de terceros.

11.- Bateragarritasuna beste dirulaguntza eta laguntza batzuekin.

11.- Compatibilidad con otras subvenciones y ayudas.-

Oinarri hauetan arautatako dirulaguntzak bateragarriak izango dira: a) Arrigorriagako Udalak norgehiagoka-araubidearen bidez edo era zuzenean emandako beste dirulaguntza-lerro batzuekin; eta b) administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek emandako beste dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrera batzuekin.

Las subvenciones reguladas en las presentes bases son compatibles: a) con otras líneas de subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento de Arrigorriaga, tanto en régimen de concurrencia competitiva como de concesión directa, y b) con otras subvenciones, ayudas o ingresos procedentes de administraciones o entes públicos o privados.

Aparte hartuta edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk kontuan hartuta, diru-laguntzen zenbatekoa ezingo da inolaz ere izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

El importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

12.- Itzulketa partzialari begira, gerta daitezkeen baldintza-hausteak mailakatzeko irizpideak.

12.- Criterios de graduación de posibles incumplimientos de condiciones, para reintegro parcial-

Gutxienez programako, proiektuko edo jarduerako elementuen %70 egiten badira, betiere gutxienez aurkeztutako proiektuko, programako edo jarduerako aurrekontu guztiaren %75 osatzen badute, ebazpena aldatuko da eta aipatutako irizpideen araberako itzulketa partziala egingo da, besterik ez. Aurreko mugak gainditzen dituen baldinta-hauste partzialaren ondorioz, oso-osorik itzuli beharko da dirulaguntza.

La realización de al menos el 70% de los elementos del programa, proyecto o actividad siempre que supongan al menos un 75% del presupuesto total del proyecto, programa o actividad presentado, solamente dará lugar a modificación de la resolución y reintegro parcial en cuantía proporcional a los referidos criterios. El incumplimiento parcial superando los anteriores límites será causa de reintegro total de la subvención.

Hori horrela izanik ere, modu zabalean edo generikoan azaldutako proiektu, programa edo jarduerei buruzko eskabideak ere aurkeztu ahal izango dira, horiek zehazteko kasu alternatibo posibleak aipatuz

Lo anterior se establece sin perjuicio de que las solicitudes puedan referirse a proyectos, programas o actividades definidos en términos amplios o genéricos, con especificación de posibles supuestos alternativos de concreción de aquellos.

Gerta daitezkeen beste baldintza-hauste batzuei dagokienez, kontuan hartuko da haustea nolakoa den, nahita egin den, eta behin baino gehiagotan egin den.

En cuanto a otros posibles incumplimientos, se tendrá en cuenta la naturaleza del incumplimiento, la intencionalidad y la reiteración.

13.- Azpikontratazioa.

13.- Subcontratación. –

Dirulaguntzaren onuradunak jarduerak, programak edo proiektuak zuzenean egin beharko ditu; beraz ezin izango ditu osoki edo zatika hirugarrenekin hitzartu.

Las actividades, programas o proyectos deberán realizarse de forma directa por la entidad beneficiaria de la subvención, sin que quepa concertar con terceros su ejecución total o parcial.

## II-4. ERANSKINA

**EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNA SUSTATZEKO PROGRAMA, PROIEKTU ETA JARDUEREI NORGEHIAGOKA ARAUBIDEPEAN DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK.**

1.- Dirulaguntzaren helburua.

Emakume eta gizonen berdintasun-maila handitzeko programak, proiektuak eta jarduerak finantzatzea, emakumeen partaidetza areagotzeko eta gizartea bi sexuen aukera-berdintasunaren inguruan sentsibilizatzeko.

Helburu orokor horren barruan honako hauexek jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak:

**1.1. Gizarte, lan, ekonomia, kultura, hezkuntza, kirol… arloan, emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko jarduketak**, betiere euren helburuak gaur egungo berdintasun-politika publikoekin bat badatoz. Atal honetan, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, eta azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean, antolatutako jarduerak hartu ahal izango dira kontuan, besteak beste.

**1.2. Erakunde edo elkarteko bertako jarduketetan genero-ikuspegia kontuan hartzeko jarduketak**. Honako hauexek dira, zehatz-mehatz:

1.2.1. Erakundeari eta/edo bere jarduketei buruzko publizitatea, betiere ahozko nahiz idatzizko hizkuntzan eta irudietan emakume zein gizonen tratua berdintasunezkoa bada.

1.2.2. Erakundeko bertako jarduketa-eremuan, emakumeek eta gizonek berdintasunaren arloan jaso beharreko prestakuntza: erakundetik bertatik egindako prestakuntza eta erakundeak berak beste instantzia batzuetatik antolatutako prestakuntzan daukan partaidetza.

1.2.3. Erakundetik garatutako jarduketetan Arrigorriagako emakume eta gizonek duten partaidetzari, egoerari, premiei eta asmoei buruzko azterketak edo txostenak, emaitzak sexuaren arabera bereizita.

**1.3. Emakumeek** erakundean bertan eta bertako erabaki-organoetan **daukaten partaidetza handitzeko jarduketak**.

**1.4. Emakume** gazteen, elbarrien, etorkinen, bazterketa ugaripean dauden emakumeen… **elkarteen** edo talde horientzako jarduketa-talde berezien **sorrera**, lehendik dauden elkarteetan bertan.

## ANEXO II-4

**BASES REGULADORAS DEL OTORGAMIENTO DE SUBVENCIONES EN REGIMEN DE CONCURRENCIA COMPETITIVA, A PROGRAMAS, PROYECTOS Y ACTIVIDADES DE PROMOCIÓN DE LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES.-**

1.-Objeto de la Subvención:

Financiación de programas, proyectos y actividades dirigidas a promover mayores cuotas de igualdad entre mujeres y hombres, incrementando la participación de éstas, así como la sensibilización de la sociedad en general, en torno a la igualdad de oportunidades entre ambos sexos.

Dentro de este objeto general, serán subvencionables:

**1.1. Actuaciones para el fomento de la igualdad de mujeres y hombres en cualquiera de los ámbitos, social, laboral, económico, cultural, educativo, deportivo, etc.,** siempre que sus objetivos estén en consonancia con las actuales políticas públicas de igualdad. En este apartado se pueden incluir, entre otras, las actividades que se organicen en torno al 8 de marzo-Día Internacional de las mujeres y 25 de noviembre-Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres.

**1.2. Aquellas dirigidas a incorporar la perspectiva de género en las actuaciones propias de la entidad o asociación** y de manera específica:

1.2.1. La publicidad sobre la propia entidad y/o sus actuaciones, siempre que incorpore un trato igualitario a mujeres y hombres, tanto en el lenguaje oral y escrito como en las imágenes.

1.2.2. La formación sobre igualdad de mujeres y hombres en el ámbito de actuación propio de la entidad, tanto en lo relativo a formación realizada desde la propia entidad, como aquella a la que ésta asiste, organizada desde otras instancias.

1.2.3. Elaboración de estudios o informes sobre la situación, necesidades, aspiraciones y participación de las mujeres y hombres de Arrigorriaga, en las actuaciones desarrolladas desde la entidad, diferenciando los resultados por sexo.

**1.3. Actuaciones dirigidas a incrementar la participación de las mujeres** tanto en la propia entidad como en sus órganos de decisión.

**1.4. La creación de asociaciones de mujeres** jóvenes, mujeres con discapacidad, inmigrantes, en situación de discriminación múltiple,.... o de grupos específicos de actuación dirigidos a estos colectivos, dentro de las asociaciones ya existentes.

2.- Onuradunen betekizunak.

Dirulaguntzei buruzko araudi orokorrean eta udal-ordenantzan zehaztutako betekizun orokorrak ez ezik, honako betekizun berezi hauek ere bete beharko dira:

Aukeran:

- Legearen arabera eratutako eta kasuan kasuko erregistroan izena emandako irabazi-asmorik gabeko erakundeak edo elkarteak izatea, betiere euren jarduerak Arrigorriagako udalerrian egiten badituzte edo, udalaz gaineko jarduerak, programak edo proiektuak izanda, Arrigorriagako biztanleen artean eragin zuzenik badute.
- Nortasun juridikorik gabeko pertsonen elkarketak izatea, betiere euren jarduerak Arrigorriagako udalerrian egiten badituzte. Halakoetan, elkarketako pertsona fisiko ordezkari edo ahalordedun bakarra izendatu beharko dute, eta behar besteko boterea eduki beharko du, elkarketak diru-laguntzako onuradun moduan dauzkan betebeharrak betetzeko.

2.- Requisitos de las entidades beneficiarias

Además de los requisitos generales recogidos en la normativa general de Subvenciones y en la Ordenanza municipal, se exigen los siguientes requisitos específicos:

Alternativamente:

- Ser entidades o asociaciones sin ánimo de lucro, legalmente constituidas y registradas en el Registro correspondiente y que desarrollen sus actividades en el municipio de Arrigorriaga, o, tratándose de actividades, programas o proyectos supramunicipales, tengan una afección directa para la población de Arrigorriaga.
- Ser agrupaciones de personas sin personalidad jurídica que desarrollen sus actividades en el municipio de Arrigorriaga. En tal caso deberán nombrar una persona física representante o apoderada única de la agrupación, con poderes bastantes para cumplir las obligaciones de ésta como beneficiaria de la subvención.

3.- Eskabideak aurkezteko modua eta epea.

Kasuan kasuko deialdian adierazitakoa izango da epea.

Eskabideak instantzia normalizatuaren bitartez aurkeztuko dira Udaleko Erregistro Orokorrean, bai eta Internet bidez ere, azken sistema hori modu teknikoan prestatuta dagoenean. Era berean, prozedura administratiboari buruzko araudian aurreikusitako lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Erantsi beharreko agiriak: deialdian adierazitako agiri zehatzak ez ezik, honako hauexek ere bai:

a) Dirulaguntza eskatzeko inprimaki normalizatu bakarra, behar bezala beteta. Bereziki, honako atal hauek ondo bete beharko dira: 1) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorreko 13. artikuluko debekuak ematen ez direla eta zerga-arloko zein Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean daudela egiaztatzeko adierazpen arduratsua; eta 2) eskatutako beste dirulaguntza batzuen datuei buruzko adierazpen arduratsua.

b) Dirulaguntza-eskabidearen helburu den programa, proiektua edo jarduera, bai eta memoria eta aurrekontua ere (diru-sarreren eta gastuen aurreikuspena).
c) Elkarteko estatutuen kopiak eta hirugarrenen fitxa (betiere udalak dagoeneko ez badu).

Programek, proiektuek edo jarduerek oinarri hauetakoak ez beste dirulaguntza-lerro batzuk eskatu ahal dituztenean, nahikoa izango da eskabide bakar bat aurkeztea.

3.- Forma y Plazo de presentación de las solicitudes:

El Plazo será el que señale la convocatoria correspondiente.

Las solicitudes se presentarán mediante instancia normalizada que se entregará en el registro general del Ayuntamiento, o telemáticamente por internet, en el momento en que este último canal esté técnicamente habilitado. También se podrá presentar en los lugares previstos en la normativa de procedimiento Administrativo.

Documentación a adjuntar: además de la específica que señale la convocatoria, la siguiente en todo caso:

a) Impreso normalizado único de solicitud de subvención debidamente cumplimentado, incluyendo en todo caso la cumplimentación de los apartados correspondientes a 1) Declaración responsable de no concurrencia de las prohibiciones del Art. 13 LGS y de estar al corriente en las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, y 2) Declaración responsable conteniendo datos de otras subvenciones solicitadas.
b) Programa, proyecto o actividad para la que se solicita, incluyendo una memoria y un presupuesto (previsión de ingresos y gastos).
c) Copias de estatutos de la Asociación y ficha de terceros (sólo si no obran ya en poder del Ayuntamiento)

En los casos en los que los programas, proyectos o actividades sean susceptibles de acogerse a otras líneas de subvención distintas de la correspondiente a las presentes bases, será suficiente la presentación de una única solicitud

4.- Dirulaguntza emateko prozedura.

Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko 10. artikuluan arautako norgehiagoka-prozedura, hain zuzen ere.

5.- Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak.

a-) Aurkeztutako jarduera, proiektu edo programaren kalitatea.
b-) Jarduerak, proiektuak edo programak talde eta pertsona hartzaileen artean duen proiekzioa eta eragina.
c-) Euskararen arloko balioen defentsa eta sustapena.

d-) Erakunde onuradunak Arrigorriagako udalerrian dauzkan agerpena eta sustraiak.

Kasuan kasuko deialdian zehaztuko da zein den aurreko irizpide bakoitzari dagokion haztapen erlatiboa.

6.- Dirulaguntzaren zenbatekoa.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kasuan kasuko deialdi publikoan adierazitako jarduera, programa edo proiektuaren azken kostuaren ehunekoaren arabera zehaztuko da, eta jarduera, programa edo proiektuko gehienezko muga ere zehaztuko da deialdian bertan.

Aparte hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk kontuan hartuta, diru-laguntzen zenbatekoa ezingo da inolaz ere izan diruz lagundutako jarduéraren kostua baino handiagoa.

7.- Organo eskudunak eta ebazpena jakinarazteko epea.

Organo instruktorea: deialdian besterik adierazi ezean, kasuan kasuko aurrekontu-programako arduradun teknikoa.

Kide anitzeko balioespen-organoa: Presidentetza: kasuan kasuko aurrekontu-programako arduradun politikoa. Idazkaritza: programa bereko arduradun teknikoa.

Ebazpen-organoa: Alkatetza.

Ebazpena jakinarazteko epea: bi hilabete, gehienez ere.

8.- Dirulaguntzaren helburua betetzen dela eta jasotako fondoak erabili direla justifikatzeko epea eta modua.

Dirulaguntzaren helburua betetzen dela eta jasotako fondoak erabili direla egiaztatzeko justifikazioa programaren, proiektuaren edo jardueraren betearazpena amaitu osteko hurrengo hiru hilabeteetan aurkeztu beharko da, betiere diru-

4.- Procedimiento de concesión de la subvención:

El de concurrencia competitiva, regulado en el artículo 10 de la Ordenanza General de Subvenciones

5.- Criterios objetivos de otorgamiento de la subvención:

a-) Calidad de la actividad, proyecto o programa presentado

b-) Proyección e incidencia de la actividad, proyecto o programa en los colectivos y personas destinatarias.
c-) Incorporación de la defensa y promoción de valores en materia de euskara.
d-) Presencia y arraigo de la entidad beneficiaria en el municipio de Arrigorriaga

La ponderación relativa atribuida a cada uno de los anteriores criterios se determinará en la convocatoria correspondiente.

6.- Cuantía de la subvención:

La cuantía de la subvención quedará determinada por el porcentaje del coste final de la actividad, programa o proyecto que se especifique en la correspondiente convocatoria pública con el límite máximo por actividad, programa o proyecto que igualmente se precise en la convocatoria.

El importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

7.- Órganos competentes y plazo en que será notificada la resolución:

Órgano Instructor: Salvo que la convocatoria señale otro distinto, la o el responsable Técnico del programa presupuestario correspondiente.

Órgano Colegiado de Valoración: Presidencia: el o la responsable política del programa presupuestario correspondiente; Secretaría: la o el responsable técnico del mismo programa.

Órgano Resolutorio: la Alcaldía

Plazo en que será notificada la resolución: máximo dos meses.

8.- Plazo y forma de justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.

La justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos deberá presentarse dentro de los tres meses siguientes a la finalización de la ejecución del programa,

laguntza eman zenekoaren hurrengo ekitaldiko martxoa amaitu baino lehen.

proyecto o actividad, y en todo caso antes de que finalice el mes de marzo del ejercicio siguiente a aquél en que se concedió la subvención.

Justifikatzeko modua: gastuen egiaztagiriak eskatzen dituen justifikazio-kontua.

Forma de justificación: Cuenta Justificativa con aportación de justificantes de gasto

Zeharkako kostuak egozteko orduan, kostu guztiaren %5erainokoak izango dira zeharkako kostuak, eta ez dira justifikatu beharko. Dena dela, aurreko guztia espedienteari erantsi beharko zaion tosten ekonomikoan oinarritu beharko da.

A efectos de imputación de costes indirectos, se consideran tales, no requiriendo, por tanto, justificación, los que supongan hasta el 5 % del coste total, lo que se fundamentará en el estudio económico que se deberá incorporar al expediente.

9.- Ordainketen araubidea.

9.- Régimen de Pagos.-

Oro har, diru-laguntza aldez aurretik ordainduko da oso-osorik, hau da, justifikazio eta egiaztapen prozedura amaitu baino lehen. Deialdian bertan adieraziko da zer epe edo unetan ordainduko den dirulaguntza. Deialdian besterik adierazi ezean, ez da inolako bermerik eman beharko, dirulaguntza aldez aurretik ordaintzeko orduan.

Con carácter general el pago total de la subvención será anticipado, esto es, con anterioridad a la conclusión del procedimiento de justificación y comprobación. La convocatoria precisará el plazo o momento en que se hará efectivo el pago. Salvo que la convocatoria establezca lo contrario, no será necesaria la prestación de garantía alguna para el pago anticipado.

10.- Ebazpena aldatzeko moduko inguruabarrak.

10.- Circunstancias que podrán dar lugar a modificación de la resolución.-

Dirulaguntza ematean kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, emakida-ebazpena aldatu ahal izango da.

La alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

Deialdi-egintza administratiboan, behar besteko kasuak adierazi ahal izango dira, dirulaguntza eman duen ebazpenaren edukiaren aldaketa eskatzeko aukera izan dezan onuradunak. Aldaketa- eskaria baimendu ahal izango da, betiere hirugarrenen kalterako ez bada.

El acto administrativo de convocatoria podrá establecer los supuestos en los que, una vez recaída la resolución de concesión, la entidad beneficiaria puede solicitar la modificación de su contenido, que podrá autorizarse siempre que no haya perjuicio de terceros.

11.- Bateragarritasuna beste dirulaguntza eta laguntza batzuekin.

11.- Compatibilidad con otras subvenciones y ayudas.-

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak bateragarriak izango dira: a) Arrigorriagako Udalak norgehiagoka-araubidearen bidez edo era zuzenean emandako beste dirulaguntza-lerro batzuekin; eta b) administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek emandako beste dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrera batzuekin.

Las subvenciones reguladas en las presentes bases son compatibles: a) con otras líneas de subvenciones otorgadas por el Ayuntamiento de Arrigorriaga, tanto en régimen de concurrencia competitiva como de concesión directa, y b) con otras subvenciones, ayudas o ingresos procedentes de administraciones o entes públicos o privados.

Aparte hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk kontuan hartuta, diru-laguntzen zenbatekoa ezingo da inolaz ere izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

El importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

12.- Itzulketa partzialari begira, gerta daitezkeen baldintza-hausteak mailakatzeko iripideak.

12.- Criterios de graduación de posibles incumplimientos de condiciones, para reintegro parcial-

Gutxienez programako, proiektuko edo jarduerako elementuen %70 egiten badira, betiere gutxienez aurkeztutako proiektuko, programako edo jarduerako aurrekontu guztiaren

La realización de al menos el 70% de los elementos del programa, proyecto o actividad siempre que supongan al menos un 75% del presupuesto total del proyecto, programa o

%75 osatzen badute, ebazpena aldatuko da eta aipatutako irizpideen araberako itzulketa partziala egingo da, besterik ez. Aurreko mugak gainditzen dituen baldintza-hauste partzialaren ondorioz, oso-osorik itzuli beharko da dirulaguntza.

Hori horrela izanik ere, modu zabalean edo generikoan azaldutako proiektu, programa edo jarduerei buruzko eskabideak ere aurkeztu ahal izango dira, horiek zehazteko kasu alternatibo posibleak aipatuz.

Gerta daitezkeen beste baldintza-hauste batzuei dagokienez, kontuan hartuko da haustea nolakoa den, nahita egin den, eta behin baino gehiagotan egin den.

13.- Azpikontratazioa.

Oro har, dirulaguntzako pertsona edo erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren %50etik gorakoa ez den ehunekoraino azpikontratatu ahal izango du. Behar bezala justifikatutako salbuespenezko egoeretan, azpikontratazioak ehuneko hori gainditu ahal izango du, eta diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren %100ekoa ere izan ahalko da. Halakoetan, deialdiaren berri emateko egintza administratiboan, behar bezala arrazoitu beharko da %50eko mugatik gora azpikontratatzeko aukera.

Kasu guztietan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 29. artikuluko 3. eta 7. paragrafoetan (edo, hala izatekotan, haren ordez emango den arau orokorrean) adierazten diren mugak eta betekizunak bete beharko dira.

**II-5. ERANSKINA**

**DIRULAGUNTZAK KONKURRENTZIA EZ-LEHIAKORRAREN ARAUBIDEPEAN EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK: UDAL KIROLDEGIAN ABONATUENTZAKO BEKAK.**

1.- Dirulaguntzaren helburua.

Oinarri hauetan arautukako laguntzek egoera ekonomiko txarragoa dutenei kirol-jardunak egin ahal izango dituztela bermatzea dute helburu, kirol-jardun horiek herritarren bizi-kalitatea hobetu eta garapen integrala sustatzen dutelako gaur egungo aisialdi-gizartean. Era berean, gorputz eta kirol arloko jarduerak eskubidea dira, osasungarriak dira, olgeta bultzatzen dute eta pertsona guztien harremanak zein integrazio soziala hobetzen dituzte. Hori dela eta, botere publikoek sustatu egin behar dituzte.

2.- Onuradunen betekizunak.

Arrigorriagan erroldatutako pertsona fisikoak izango dira dirulaguntza hauen hartzaileak, betiere urteko abonuetako titularrak badira eta euren baliabideak kirol-instalazioak

actividad presentado, solamente dará lugar a modificación de la resolución y reintegro parcial en cuantía proporcional a los referidos criterios. El incumplimiento parcial superando los anteriores límites será causa de reintegro total de la subvención.

Lo anterior se establece sin perjuicio de que las solicitudes puedan referirse a proyectos, programas o actividades definidos en términos amplios o genéricos, con especificación de posibles supuestos alternativos de concreción de aquellos.

En cuanto a otros posibles incumplimientos, se tendrá en cuenta la naturaleza del incumplimiento, la intencionalidad y la reiteración.

13.- Subcontratación:

Con carácter general, la entidad beneficiaria de la subvención podrá subcontratar hasta un porcentaje que no exceda del 50 por 100 del importe de la actividad subvencionada. En situaciones excepcionales debidamente justificadas, la subcontratación podrá superar dicho porcentaje, e incluso alcanzar el 100 por 100 del importe de la actividad subvencionada. En tales casos, en el acto administrativo mediante el que se haga pública la convocatoria, deberá motivarse debidamente la posibilidad de subcontratación por encima del límite del 50 por 100.

En todos los casos, serán de aplicación los límites y exigencias de los apartados 3 y 7 del artículo 29 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, o normativa general que venga a sustituirla.

**ANEXO II-5**

**BASES REGULADORAS DEL OTORGAMIENTO DE SUBVENCIONES EN REGIMEN DE CONCURRENCIA NO COMPETITIVA: BECAS PARA PERSONAS ABONADAS AL POLIDEPORTIVO MUNICIPAL .-**

1.-Objeto de la Subvención:

Las ayudas reguladas por las presentes bases tienen como objeto asegurar el acceso real a las prácticas deportivas de las personas más desfavorecidas económicamente, entendiendo dichas prácticas como elementos que contribuyen a mejorar la calidad de vida y el desarrollo integral de las personas en la sociedad del ocio en la que vivimos. Asimismo se considera que las actividades físico-deportivas son un derecho, contribuyen a la salud, potencian la recreación y mejoran la relación e integración social de todas las personas correspondiendo a los poderes públicos su promoción

2.- Requisitos de las personas beneficiarias :

Serán destinatarias de estas ayudas todas aquellas personas físicas empadronadas en el municipio de Arrigorriaga, que sean titulares de un abono anual, cuyos recursos resulten

erabiltzeagatiko tasan edo prezio publikoan zehaztutako kostuari aurre egiteko bestekoak ez badira.

insuficientes para hacer frente al coste de la tasa o precio público establecido para la utilización de las instalaciones deportivas.

Dirulaguntzei buruzko araudi orokorrean zehaztutako betekizunak ez ezik, honako betekizun berezi hauek ere bete beharko dira:

a) Laguntzaren onuradunak izan daitezkeen guztiak Arrigorriagako udalerrian erroldatuta egotea, laguntzari dagokion denboraldi osoan, etenik gabe.
b) Kasuan kasuko tasak edo prezio publikoak aldez aurretik ordaindu izana.
c) Baliabide ekonomiko nahikorik ez edukitzea. Laguntza honen xederako, joko da behar beste baliabiderik ez dagoela bizikidetza-unitatearen urteko baliabideak urteko deialdi bakoitzeko baremoan zehaztutakoak bezalakoak edo hortik beherakoak direnean. Baremoa bizikidetza-unitateko kide-kopuruaren arabera sailkatua egongo da. Bestetik, honako hauexek izan daitezke bizikidetza-unitate bateko kideak: senar-emazteak edo izatezko bikotekideak, bertan bizi diren seme-alabak eta menpeko beste edozein pertsona, betiere helbide berean erroldatuta badaude.

Además de los requisitos establecidos en la normativa general sobre subvenciones, se exigirán los siguientes requisitos específicos:

a) Estar empadronadas en el municipio de Arrigorriaga todas las posibles personas beneficiarias de la ayuda, durante todo el período de la misma.
b) Haber abonado previamente las tasas o precios públicos correspondientes.
c) Disponer de recursos económicos insuficientes. A los efectos de la presente ayuda se considera que no se dispone de los recursos suficientes cuando la unidad convivencial disponga de unos recursos anuales iguales o inferiores a los que se establezcan en el baremo de cada convocatoria anual, ordenado en función del número de personas integrantes de la unidad convivencial. Se considerarán integrantes de dicha unidad al matrimonio o pareja de hecho, a los hijos e hijas que convivan en la misma y a cualquier otra persona dependiente debidamente empadronada en el mismo domicilio.

3.- Eskabideak aurkezteko modua eta epea.

Eskabideak instantzia normalizatuaren bitartez aurkeztuko dira Udaleko Erregistro Orokorrean eta kiroldegiko instalazioetan, bai eta Internet bidez ere, azken sistema hori modu teknikoan prestatuta dagoenean. Era berean, prozedura administratiboari buruzko arautegian aurreikusitako lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Deialdian adierazitako agiriak ez ezik, honako hauexek ere aurkeztu beharko dira:

1.- Dirulaguntza eskatzeko inprimaki normalizatua, behar bezala beteta. Bereziki, honako atal hauek ondo bete beharko dira: helburu bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jaso ez direla egiaztatzeko adierazpen arduratsua; eta zerga-arloko zein Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean daudela egiaztatzeko adierazpen arduratsua.
2.- Dagokion urteko abonuaren ordainagiria.
3.- Bizikidetza-unitateko kideen zerrenda (euren erroldaketa ofizioz egiaztatuko da).
4.- Azken urteko Pertsona Fisikoen Errenta Aitorpena edo, besterik ezean, aitorpena egin ez izanaren egiaztagiria, bai eta urte berean jasotako diru-sarrerei buruzko aitorpen arduratsua ere.

Deialdia itxia izango da, hau da, eskabideak epe zehatz bakar batean baino ez dira aurkeztuko. Kasuan kasuko deialdian zehaztutako da aurkezteko epea zein den.

3.- Forma y Plazo de presentación de las solicitudes:

